



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 21a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenaren zuzenbide-egokitasuna dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako irizpenaz, horren ondorioez eta Departamentuak duen irizpizari eta abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpena, ikastetxeetako matrikula-prozesua arautzen duena, dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena kontuan ez hartzeko arrazoiari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, enpresek beren zerga-aitorpenetan aplikatzen dituzten hobariak eta kenkariak ontzat emateko Ogasunak egiten dituen prozedurei, ikuskapenei eta justifikazio-eskaerei buruzkoa. Carlos Couso Chamorro jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Erantzukizun Fiskalaren Agintaritza Independentek Nafarroari buruz egindako txostenaren edukia dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Jokin Castiella Imaz jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Goi Erriberan garaian garaiko elektrizitate-hornidura eduki dezaten Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Navarra Tech Transfer-ek Nafarroan banku publiko bat sortzea bertan behera uztea ote dakarren jakitekoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Errenta Bermatua ezartzeak dei-efektua izan dezakeen jakitekoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetze aldera EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu duten ekimenari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzeko aukerari buruzko txostenaren gainekoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aurrematrikula-datuen gainean Nafarroako Gobernuko lehendakariak egiten duen balorazioari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Bardeako Natur Parkean arma errealekin eginiko ariketa militarren gainean Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Capraboko hemezortzi langile kaleratzeari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (10. or.).
- Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimentzat otsailaren 18an egindako omenaldi, errekonozimendu eta erreparazio ekitaldiari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, jakitekoa noiz exigituko dion Nafarroako Gobernuko lehendakariak Bilduri, programa-akordioa betez, jendaurrean eta aringarririk gabe gaitzets ditzan ETaren atentatuak, bahiketak eta estortsioak. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (11. or.).
- Galdera, herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean baremazio-merezimendu gisa alokairua ez ordaintzea jasotzeko buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, gure erkidegoan bizi ez diren edo bertara iritsi berri diren herritarrei etxebizitzarako laguntzak emateari buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, alokairurako laguntzak jasotzeko orduan gizarteratze errenta jasotzen dutenen eta jasotzen ez dutenen artean egin nahi den bereizketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenaren zuzenbide-egokitasuna dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako irizpenaz, horren ondorioez eta Departamentuak duen iritzari eta abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenaren zuzenbide-egokitasuna dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako irizpenaz, horren ondorioez eta Departamentuak duen iritzari eta abiaraziko dituen ekimenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko kide Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran erantzun dakion:

-Zer iritzi du, zer ondorio aurreikusten du eta zer ekimen abiaraziko du Hezkuntza Departamentuak, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpenaren zuzenbide-egokitasunaz Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena dela-eta?

Corellan, 2017ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpena, ikastetxeetako matrikula-prozesua arautzen duena, dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena kontuan ez hartzeko arrazoiari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko 2/2017 Ebazpena, ikastetxeetako matrikula-prozesua arautzen duena, dela-eta Nafarroako Kontseiluak emandako irizpena kontuan ez hartzeko arrazoiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderi atxikita dagoen foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kontseiluak, Foru Komunitateko organo aholku-emaila gorenaita, irizpen bat

eman berri du, Nafarroako Parlamentuaren eskariz. Bertan adierazten denez, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 10eko Ebazpenak, ikastetxeetako matrikula-prozesua arautzen duena, arau-hierarkiaren printzipioa urratzen du, eremu ez euskaldunean D eredu onartzeari dagokionez. Eskualde ez euskaldunean seme-alabak D eredu matrikulatu nahi dituzten familiei bi eskabide bete ditzaten eskatzen zaie: bata, eskualdeko ikastetxe publikoko D eredurako; bestea, Nafarroako familia guztientzat amankomuna dena, zeinetan hiru ikastetxe markatzen diren, lehenetasun-hurrenkerari jarraikiz. Ikastetxe publikoan D eredurako eskaera nahikoa egonez gero, eskabide hori tramitatu egiten da. Hala ez bada, beste eskabidea tramitatzen da. 31/2007 Foru Dekretuak eta 2015eko martxoko Foru Aginduak ezartzen dute, zalantzarik gabe, eskabide bat baino gehiago aurkezten badira ez dela bat bera ere tramitatuko.

Zergatik ez dute kontuan hartu Nafarroako Kontseiluaren 5/2017 irizpena eta aurrera segitu dute 2017/18 ikasturterako aurreinskripzioarako diseinatutako prozesuarekin, baldin eta haren jakitun otsailaren 10etik, ostirala, baldin baziren, hots, aurreinskripzioarako astea hasi aurretik?

Iruñean, 2017ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, enpresek beren zerga-aitorpenetan aplikatzen dituzten hobariak eta kenkariak ontzat emateko Ogasunak egiten dituen prozedurei, ikuskapenei eta justifikazio-eskaerei buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarrro jaunak aurkeztutako galdera, enpresek beren zerga-aitorpenetan aplikatzen dituzten hobariak eta kenkariak ontzat emateko Ogasunak egiten dituen prozedurei, ikuskapenei eta justifikazio-eskaerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarrro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu

du, Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergak Nafarroan ordaintzen dituzten enpresek, bereziki bolumen eta fakturazio handienekoen, zerga-hobariak eta -kenkariak izaten dituzte hainbat kontzepturen bidez; besteak beste, I+G+b arloko inbertsioak, enplegua sortu eta sustatzea, ingurumen arloa eta abar.

Zer protokolo eta prozedura erabiltzen ditu Nafarroako Ogasunak, enpresek beren zerga-aitorpenetan aplikatzen dituzten hobari eta kenkari horiek ontzat emateko?

Azken lau ekitaldietan zenbat ikuskapen edo justifikazio-eskaera bideratu zaizkie enpresei, egiaztatze aldera aplikatutako zerga-kenkariak eta -hobariak behar bezalako agiri bidezko justifikazioa daukatela? Nola egiaztatzen da hobariak jaso edo kenkarirako eskubidea sortzen duten dituzten proiektuak eta jarduketak benetan gauzatu direla?

Iruñean, 2017ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarrro

Galdera, Erantzukizun Fiskalaren Agintaritzaren Independenteteak Nafarroari buruz egindako txostenaren edukia dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

JOKIN CASTIELLA IMAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Erantzukizun Fiskalaren Agintaritzaren Independenteteak Nafarroari buruz egindako txostenaren edukia

dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Jokin Castiella Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak 2017ko otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki, AIReF-Erantzukizun Fiskalaren Agintaritza Independentek argitara eman du "Administrazio publikoen aurrekontuen lerro nagusiei eta hasierako aurrekontuei buruzko txostena 2017: Autonomia Erkidegoak" delakoa, zeinetan uste duen nekez gertatzekoa dela Nafarroako Foru

Komunitateak 2017an betetzea % -0,6ko egonkortasun-helburua.

Halaber, txostenaren arabera, egingarritasunaren ikuspegitik, Nafarroako Foru Komunitateak batez bestekoa baino askoz ahalegin txikiagoa egin beharko luke 2017an BPGaren % -0,6ko egonkortasun-helburua lortzeko.

Egoera hori ikusirik, hau da galdera:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du AIReFen txostenak, Nafarroari dagokionez, duen edukiari buruz?

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Jokin Castiella Imaz

Galdera, Nafarroako Goi Erriberan garaian garaiko elektrizitate-hornidura eduki dezaten Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Goi Erriberan garaian garaiko elektrizitate-hornidura eduki dezaten Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikita dagoen foru parlamentari Guzmán

Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurtengo otsaileko lehen egunetan argi-etenak gertatu ziren –luzeagoak batzuk, laburragoak besteak– Nafarroako Goi Erriberan. Halatan, bertako herritarrak argindarrik gabe bi orduz jarraian egoitera iritsi ziren. Azagra, San Adrián, Andosilla eta beste herri askotan instalatutako enpresak ere nahitaez egon dira geldirik denbora luzez, zenbait kasutan "ohikotzat" jotzen dituzten etenaldiak pairatuta.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzeko asmoa du, Nafarroako Goi Erriberako elektrizitate-hornidura izan dadin pertsonak eta enpresak mugitzen diren garaian arabera?

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Navarra Tech Transfer-ek Nafarroan banku publiko bat sortzea bertan behera uztea ote dakarren jakitekoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Navarra Tech Transfer-ek Nafarroan banku publiko bat sortzea bertan behera uztea ote dakarren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikita dagoen foru parlamentari Guzmán Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilari Manu Ayerdik otsailaren 14an kapital-funts berri bat seinalatu zuen, Navarra Tech Transfer, etapa goiztiarretan oinarri teknologikoko proiektuei zuzendutako finantza-tresna gisa.

Navarra Tech Transfer-ek esan nahi du behin betikoz bertan behera utziko dela Nafarroan banku publiko bat sortzeko proiektua?

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Errenta Bermatua ezartzeak dei-efektua izan dezakeen jakitekoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Errenta Bermatua ezartzeak dei-efektua izan dezakeen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikita dagoen María Chivite Navascués

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Orain dela gutxi, Espainiako hedabide digital batek Barkos lehendakariari egindako elkarrizketa batean, lehendakariak honako hau adierazi zuen errenta bermatuari buruz:

“Abenduan onetsi da, eta orain ari gara abian jartzen. Ez zaituztet engainatzen, nolabaiteko dei-efektua izan dezakeelako beldur pixka bat badut”

– Zeri zor zaio egiazko kezka hori? Zer dela-eta hori?

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetze aldera EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu duten ekimenari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetze aldera EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu duten ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer deritzo Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua eratzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Foru Legea indargabetze aldera EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek aurkeztu duten ekimenari?

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzeko aukerari buruzko - txostenaren gainekoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan banku publiko bat sortzeko aukerari buruzko - txostenaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak ahozko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, otsailaren 23an egin beharreko kontrolako Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Nafarroan banku publiko bat sortzeko aukerari buruzko txosten bat kontratatzeko prozedura bertan behera utzi eta gero, zertan da auzi hori? Departamentuak urratsik egin al du kontratazio-prozesu, kudeaketa-agindu edo entitate publiko batekiko lankidetzaren berririk abiarazteko, txosten hori egiteko xedez?

Iruñean, 2017ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aurrematrikuladatuena gainean Nafarroako Gobernuak lehendakariak egiten duen balorazioari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aurrematrikuladatuena gainean Nafarroako Gobernuak lehendakariak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, heldu den otsailaren 23ko Osoko Bilkuran Gobernuak lehendakariak ahoz erantzuteko:

2017-2018 ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikula-epea bukatuta,

Nafarroako Gobernuak lehendakariak zer balorazio egiten du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako aurrematrikuladatuena buruz?

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Bardeako Natur Parkean arma errealekin eginiko ariketa militarren gainean Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Bardeako Natur Parkean arma errealekin eginiko ariketa militarren gainean Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkar-tekoele eledun José Miguel Nuin Moreno jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak heldu den otsailaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Otsailaren 22tik martxoaren 3ra bitarte aire-lur erasoko ariketak eginen dira, arma errealekin erabiltzea, Bardeako poligono militarrean.

Bardean eginen diren su errealeko entrenamendu militar horiek Red Flag ariketen parte dira.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Bardeako Natur Parkean arma errealekin eginiko ariketa militarren kokaleku berriro ere izateari buruz?

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Capraboko hemezortzi langile kaleratzeari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Capraboko hemezortzi langile kaleratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ikusita Capraboko hemezortzi langile kaleratuko dituztela iragarri dela –kaleratzearen dirua hori jakinarazi baino lehen sartu zieten beren kontuetan– eta mobilizazioak planteatu direla baldin eta egoera hori zuzentzen ez bada:

Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egingen ditu horri dagokionez eta enpresa premiatze alde-ra langile horiek berriz har ditzan? Nafarroako Gobernuak ezagutzen al ditu Capraboren berdintasun-plana eta plan horretako ekintzak?

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimenzat otsailaren 18an egindako omenaldi, errekonozimendu eta erreparazio ekitaldiari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimenzat otsailaren 18an egindako omenaldi, errekonozimendu eta erreparazio ekitaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

Iragan larunbatean, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimenzako omenaldi, errekonozimendu eta erreparazio ekitaldi bat egin zen.

- Gobernuko lehendakariaren ustez, omenaldi hori merezi duten biktima al dira, besteak beste, Mikel Castillo edo José Miguel Etxeberria (goitizenez, Naparra)?

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa noiz exigituko dion Nafarroako Gobernuko lehendakariak Bilduri, programa-akordioa betez, jendaurrean eta aringarririk gabe gaitzets ditzan ETaren atentatuak, bahiketak eta estortsioak.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa noiz exigituko dion Nafarroako Gobernuko lehendakariak Bilduri, programa-akordioa betez, jendaurrean eta aringarririk gabe gaitzets

ditzan ETaren atentatuak, bahiketak eta estortsioak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan larunbatean Nafarroako Gobernuak antolatutako ekitaldi bat egin zen, zeinean omenaldia egin baitzitzaien, besteak beste, ETA banda terroristarekin zuzeneko harremana izandako pertsoneri. Ekitaldi horrek berriro erakutsi zuen Barkos lehendakariak amore eman duela Bilduren –ETA-ren terrorismoa gaitzetsi gabe jarraitzen duen alderdiaren– aitzinean, Gobernuan mantendu ahal izateko.

Gobernu honek oinarri duen programa-akordioak honako hau dio 63. orrialdean: “gerta litezkeen indarkeria-ekintza edo giza eskubideen urraketara oro aringarrik gabe arbuia eta gaitzesteko konpromisoa hartuko du aldaketaren Gobernuak, halako urraketa norena ere den: ETArena, ultraeskuineko taldeena edo Estatuaren funtzionarioena”.

Hori dela eta, honako galdera hau egiten dugu:

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak, programa-akordioa betez, Nafarroako Gobernuko lehendakaria den aldetik duen eginkizun morala betez eta banda terroristaren biktimen defentsan, noiz exigituko dio Bilduri aringarrik gabe eta jendarean gaitzets ditzan ETAREN atentatuak, bahiketak eta estortsioak?

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean baremazio-merezimendu gisa alokairua ez ordaintzea jasotzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera herritarrei etxebizitzaren arloan laguntzeko neurriak ezartzen dituen Foru Lege proposamenean baremazio-

merezimendu gisa alokairua ez ordaintzea jasotzeari buruzkoa zen, eta 2016ko urriaren 4ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, alokairurako laguntzak jasotzeko orduan gizarteratze errenta jasotzen dutenen eta jasotzen ez dutenen artean egin nahi den bereizketari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera alokairurako laguntzak jasotzeko orduan gizarteratze errenta jasotzen dutenen eta jasotzen ez dutenen artean

egin nahi den bereizketari buruzkoa zen, eta 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, gure erkidegoan bizi ez diren edo bertara iritsi berri diren herritarrei etxebizitzarako laguntzak emateari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera gure erkidegoan bizi ez diren edo bertara iritsi berri diren herritarrei etxebizitzarako laguntzak emateari

buruzkoa zen, eta 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

